ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko azaroaren 6a, asteazkena • 128 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2019ko urriaren 29ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

— **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 674/2019 Erabakia, urriaren 29koa. Onespena ematea Foru Aldundiak hainbat organismotan eduki behar dituen ordezkariak izendatzeari edo berriztatzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 675/2019 Erabakia, urriaren 29koa. Onestea hutsak zuzentzea irailaren 24ko 581/2019 Erabakian eta urriaren 1eko 607/2019 Erabakian, zeinen bidez Foru Aldundiak organismo eta erakunde publiko edo pribatuetan eduki behar dituen ordezkariak izendatzen baitira.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 676/2019 Erabakia, urriaren 29koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren 2019rako enplegu publikoaren hirugarren eskaintza.

Foru Gobernu Kontseiluaren 677/2019 Erabakia, urriaren 29koa. Onespena ematea ibilgailu lote batzuen hornidura adjudikatzea Gaursa Arabauto, Bi-Ondo Motor, Autocentro Armentia, Auto Electricidad Ondo eta Universal enpresei, guztira, 459.449,82 euroan (BEZa barne), maiatzaren 28ko 339/2019 Erabakiaren bidez deitutako prozedura irekiaren ondorioz.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 678/2019 Erabakia, urriaren 29koa. Onestea, Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskaturik, 23/2019 kreditua gaitzeko espedientea, 667.700,00 euroko zenbatekoarekin, "Hiriko hondakinen gaikako bilketa kudeatzea" izeneko partida funtsez hornitzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 679/2019 Erabakia, urriaren 29koa. 137/2019 kreditu transferentziaren espedientea onestea, 5.936,87 euroko zenbatekoaz, funtsez hornitzeko "Labore berriak probatzeko makineria" partida sortu berria, Nekazaritza Sailak hala eskatuta.

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 680/2019 Erabakia, urriaren 29koa. Onespena ematea Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, EBA SL sozietatearekin izenpetutako kontratuaren likidazioari, 1.411.475,63 euroan (BEZa barne), eta kontratuari erantzuteko eratutako fidantzak itzultzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 681/2019 Erabakia, urriaren 29koa. Onespena ematea landa autoponpa astuneko ibilgailu bat Arabako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamenduko Zerbitzurako erosteko prozedura irekia esleitzeari.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 682/2019 Erabakia, urriaren 29koa. Onespena ematea Lukiano, Aperregi eta Gillerna herrietako (Araba) saneamendu eta hondakin urak arazteko proiektua burutzeko eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda handitzeari.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Foru Gobernu Kontseiluaren 683/2019 Erabakia, urriaren 29koa. Onespena ematea "Dulantziko ur biltegia eraitsi eta berria eraikitzeko proiektuaren" eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari eta okupatzeko beharraren aitorpenari, presako prozedura bidez.

Foru Gobernu Kontseiluaren 684/2019 Erabakia, urriaren 29koa. Onespena ematea Larrazubiko eta Fontechako hornidurarako biltegi berriaren eta goi presioko sarearen proiektuaren jendaurreko informazio aldian aurkeztutako alegazioei erantzuteari, eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari eta okupatzeko beharraren aitorpenari, presako prozeduraren bidez.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.11.06 06:50:16 Z